



ZATI KI BALIOKIDEAK

IRAKURRI ARRETAZ ONDORENGO TAULA:


Hartu kontuan irudi bakoitzaren zati bera dagoela margotuta.



$$\frac{8}{24}$$



$$\frac{4}{12}$$



$$\frac{2}{6}$$

$\frac{8}{24}$, $\frac{4}{12}$ eta $\frac{2}{6}$ zatikiak **baliokideak** dira, unitatearen zati bera adierazten dute eta.

Bi zatiki edo gehiago baliokideak dira unitatearen zati bera adierazten baldin badute.

Zatiki baliokideak lortzea

Zatiki baliokideak **anplifikazioz** lortzeko, zenbakitzailea eta izendatzailea zenbaki berarekin biderkatuko ditugu.

$$\frac{4}{8} \xrightarrow{\times 2} \frac{8}{16}$$

Zatiki baliokideak **sinplifikazioz** lortzeko, izendatzailea eta biderkatzailea zenbaki berarekin zatituko ditugu.

$$\frac{4}{8} \xrightarrow{: 4} \frac{1}{2}$$

Ezin dugunean gehiago sinplifikatu, zatiki hori laburtezina edo sinplifikaezina dela esaten da.


$\frac{1}{2}$ zatiki laburtezina da.

IKUSI BIDEO HAU:

GOGORATU ZATI KIAK ORDENAGAILUAN HORRELA IDAZTEN DITUGULA

3/4


1. ARIKETA: Baliokideak al dira zatiki hauek? Zergatik?



Bai, unitatearen zati berdina adierazten duelako.

Ez, unitatearen zati ezberdina adierazten dutelako.

2. ARIKETA: Idatzi irudi bakoitzak adierazten duen zatikia eta adierazi zein diren baliokideak.



A eta

B eta

C eta

3. ARIKETA: Anplifikatuz (x 2) zatiki bakoitzaren baliokide bat.

a) $\frac{3}{5}$ b) $\frac{4}{7}$ c) $\frac{5}{9}$ d) $\frac{3}{4}$ e) $\frac{2}{5}$


4. ARIKETA: Sinplifikatu honako zatiki hauek eta bilatu zatiki laburtezina.

a) $\frac{6}{10}$ b) $\frac{12}{16}$ c) $\frac{8}{24}$ d) $\frac{16}{20}$ e) $\frac{6}{18}$

5. ARIKETA: Sinplifikatuz, aurkitu zatiki laburtezina.

a) $\frac{16}{24}$ b) $\frac{36}{60}$ c) $\frac{21}{27}$ d) $\frac{24}{30}$ e) $\frac{9}{18}$

6. ARIKETA: Nuriak irudiaren sei bederatziren ($\frac{6}{9}$) margotu dela dio eta Rubenek, irudiaren bi heren ($\frac{2}{3}$) margotu direla. Nork du arrazoia?



Nuriak du arrazoia.

Rubenek du arrazoia.

Biek dute arrazoia.

7. ARIKETA: Raulek txokolatina baten $\frac{8}{16}$ hartu du, eta Josebak, $\frac{4}{8}$. Biotako zeinek hartu du txokolatina zati handiena? Ba al dago zatirik sobera?



Raulek hartu du txokolatina zati handiena.

Josebak hartu du txokolatina zati handiena.


Biek zati berdina hartu dute.

Bai laurden bat sobera gelditu da.

Ez da ezer sobera gelditu.

Herena soberan gelditu da.

8. ARIKETA: Zenbat pisatzen du izar bakoitzak?



Izar berde bakoitzak

2

1

3

Izar gorriak

3

1

2